

JATORRIZKO HIZKUNTZA OSASUNGINTZAN

Ez da gauza bera galesez ala ingelesez erditzea

Ez da gauza bera pediatriak umeari zer esaten duen ulertzea eta ez ulertzea. Ez da gauza bera buru gaixotasuna izan eta osasun profesionalek norberaren jatorrizko hizkuntzan ala bigarren hizkuntzan egitea. Euskaldunok bezala pairatzen dituzte horrelako egoerak gales hitzunez.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Presaka daramate emakumea ospitaleko operazio-gelara. Haurdun dago eta erditzea ez da aurreikusten erraza. Ama izatear dagoen emakumeak bere ezkerretara gizon gazte bat dauka. Emakumearen eskuan tutu bati eusten dio. Galesez egiten dio, ez ingelesez. Heledd ap Gwynfor haurduna ez da inoiz ahaztuko gizon hartaz: “Urrea balio zuen hark niri galesez egiteak, konturatzen nintzen gero eta lasaiago nengoela berari esker. Emaginarekin baino errazago adierazi nezakeen sentitzen nuena”. Baina lanorduek lanordu dira eta erditzen ari zela ondoko langile guztiek alde egin zioten eta berriak etorri ziren: “Gazteak esan zidan joan egin behar zuela. Bihotzak pott egin zidan, zeren hitz egiten zidan bitartean lasaitzen ari nintzen”.

The Guardian agerkari britainiarrak irailaren 20an jaso du adibide hau. Ondoren kontatuko ditugun adibide gehiago ere jaso ditu. Izan ere, Galesko Hizkuntza Politikaren eskutik osasun zentroetan gales hitzunak euren hizkuntzan artatuak izateko kanpaina abiatua dute. Aled Roberts da Galesko Gobernuaren Hizkuntza Politikako ordezkari nagusia eta hark adierazi du gales hitzunak sufritzen ari direla, eta batzuk arriskuan egon daitezkeela osasun zentroetako profesionalek haien jatorrizko hizkuntzan hitz egiten ez badute. Hala dio berak: “Jatorrizko hizkuntza badu galesa, hizkuntza horretan egitea beharrezkoa da beretzat, ez da aukera”. Pazientearen hizkuntza eskubideez baino, osasuna bera arriskuan jartzeaz ari da eta horregatik beharretik ari da hizketan Roberts. *The Guardian* agerkariak hainbat gales

hiztunen gertaerak eta profesionalek emandako iritziak jaso ditu.

TUTIK ULERTZEN EZ DUTEN UMEAK

Eiry Miles andrea ere, erditze zaila ari zen pairatzen. Izuak hartu zuen medikuari ulertu zionean hiltzeko arriskuan zegoela: “Emaginak ordea, galesez hitz egin zidan. Zoragarria izan zen. Nik ulertzeko moduan azaldu zidan egoera eta lasaitu ninduen. Egoeraz nire hizkuntzan hitz egin ahal izatea berezia izan zen”.

Tomos Owens profesionalak gaixoen %90arekin galesez egiten du. Langile horrek nabaritu du gurasoek estimatzen dutela haien seme-alabekin galesez hitz egiteko gai den norbait egotea, zeren: “Zailagoa da umeak zuregana hurbiltzea eta miatzen uztea, ulertzen ez duten hizkuntzan egiten badiezu”. Aled Roberts hizkuntza ordezkariak beste gai bat jarri du mahai gainean: osasun langileek haurraren hizkuntza ez dakitelako gurasoek itzultzaile lanak egiten badituzte, zer gertatzen da haurra babesteko prestatuta dauden neurriekin?

Pneumonia harrapatu eta birika batek lan egiteari utzi zion. Etxetik ehun kilometro zegoen ospitalera eraman zuten Sian Elin Williams gales hitzunaren ahizpa. Hala dio ahizpak: “Gaztea zen orduan, gales hitz ginen etxean, hain zen garrantzitsua berarentzat medikuari nola sentitzen zen bere hizkuntzan kontatzea. Etxetik urrun zegoen, baina galesez egiteak erosoago sentiarazi zuen, arrotza zitzaion hizkuntzan egitea beste kontu bat izango zen”.

Minbizia duten gaixoak artatzen dituzten erizaintza taldeak gidatzen ditu Manon Williamsek. Argi du oso garrantzitsua dela

gaixoei eta senideei galesez hitz egitea: “Jaso behar duen informazioa hari mutur askokoa izan daiteke. Era berean albiste txarrak jasotzeko ere oso garrantzitsua da, egoeraz galesez hitz egiteko aukera izatea behar dute momentu horietan”.

DEMENTZIA DAUKATEN HIZTUNAK

Zer gertatzen da arazo psikologiko eta psikiatrikoak dituzten gaixoei? Hizkuntza erreminta berebizikoa da haien gaitzen diagnostikoak egiteko eta gero artatzeko. Alabaina, zein garrantzi ematen zaio osasungintzan? Edwin Humphrey psikiatriako erizainak ezagutu ditu demenzia testen bidez diagnosia ondo egin ez zaien gaixoak. “Duela gutxi emakume bati demenzia testa egin dio mediku batek ingelesez eta horren ondorioz egin duten diagnosia kaskarra izan da. Demenzia aurreratua duela ondorioztatu dute. Gaixo horrekin hizketan aritu naiz eta konturatu naiz diagnosia dioena baino hobeto dagoe. Berriz egin diogu testa, oraingoan galesez, eta emaitza hobea eman du”. Humphrey psikiatriako erizainaz gain, musikaria ere bada. Konturatu da ingelesez abesten duten kantarien musika jarritakoan gutxiago erreazionatzen dutela gales hitzunek: “Aldiz, galesezko kantak jarritakoan segituan aurpegia pizten zaie”.


Glenda Robertsek demenzia dauka. Berak dio konturatu dela ingelesez, bere bigarren hizkuntzan, gero eta kaskarrago hitz egiten duela: “Jatorrizko hizkuntzara itzultzen ari naiz”.

ZENBAT OSASUN LANGILEK DAKITE GALESA?

Ez dakite zenbat diren, ez dute zenba-

KONFIANTZA ETA LASAITASUNA

Eiry Miles galestarrak erditze zaila izan zuen eta hala kontatu zuen: "Emaginak galesez hitz egin zidan. Zoragarria izan zen. Nik ulertzeko moduan azaldu zidan egoera eta lasaitu ninduen. Egoeraz nire hizkuntzan hitz egin ahal izatea berezia izan zen".



ketarik egin. Aled Robertsen esanetan, aldeak handiak dira Galesko eremu batzuetatik besteetara. Osasungintzako sail batzuetan gales pixka bat egin dezakete ia langile guztiek, beste batzuetan bostetik batek ere ez daki. Langile gales hiztunak detektatzeko sistemarik ez dago, eta beste hainbeste gertatzen da gaixo gales hiztunekin. Hala, hizkuntzak eta hiztunek itzalean jarraitzen dute.

IKERKETA GUTXI, KONTZIENTZIA ARE GUTXIAGO

2017ko EHUKo Udako Ikastaroetan, *Osa-suna eta Hizkuntza* jardunaldietan, Leire Erkoreka psikiatrak hitz egin zuen, besteak beste. Psikiatrian eta psikologian pazienteari bere hizkuntzan egitearen garrantziaz ari zen. Aldiz, aitortu zuen, nazioartean, gaiaren inguruko oso argitalpen gutxi dagoela, eta berak batez ere eskizofreniari lotutakoa aurkitu duela. Material urria aztertu eta ondoko ondorioa azaldu zuen: "Gaixoek ama hizkuntzan sintoma psikotiko larriagoak

agertzen dituzte bigarren hizkuntzan baino. Neurologoek eta hizkuntzalariak ez dakite oso ondo hizkuntza bakoitza garunaren zein tokitan lantzen den, baina badirudi zentzuzko hipotesia dela ama hizkuntza emozioekin lotzea eta bigarren hizkuntzak errealitatera lotzen gaituela. Bigarren hizkuntza erabiltzen dugunean hizkuntzaren igorpenari arreta handiagoa jartzen diogu, eta beraz errealitateari lotuago gabiltza.

Beste lan batek dio gure oroitzapenak emozioei lotuta daudela eta emozio horiek hizkuntza bati lotuta. Agian, erabili daiteke bigarren hizkuntza oroitzapen horiek erredukatzeko? Badirudi bigarren hizkuntzaren erabileraren bidez emozioak estali daitezkeela, eta beraz, te-

rapeutak erabili dezake pazientearen bigarren hizkuntza oroitzapen traumatikoak hobeto ateratzeko".

Leire Erkorekak Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean egiten zuen lan eta ondoko bi datuak eman zituen: Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, helduen artatze psikiatrikoan langileen %38k du euskarako B2 maila, eta umeei lana egiten dutenen %47,6k. B2 mailak ez du bermatzen kontsulta euskaraz ematea.

Eskubidez behar luke euskaraz edo galesez osasun arreta jasotzea. Ez da beti hala gertatzen. Beharra dagoenean ere ez. ●

BABESLETZA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala



ESKAINI EUSKARA: LEHEN HITZA *euskaraz!*

ARGIA 1919 · 2019